2.- Erregimen erraztupeko jarduera horiek kaltetuak suertatzen badira suteak edo uholdeak direla eta, edo lantokia behera etorri delako edo matxura larriak gertatu direlako industri ekipoan, eta horrek jarduera etenarazi edo kaltetu badu, interesdunek indize edo moduluak murriztea eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari. Horretarako, hogeita hamar egun izango dute inguruabarrak gertatu ondoren eta dagozkion frogak aurkeztu beharko dira. Zerga Administrazioari kalte horiek gertatu direla egiaztatu ondoren, indize edo moduluetan dagokion murrizketa egitea erabakiko da.

Era berean, aurreko paragrafoan ezarritako prozedura beraren arabera, indize edo moduluen murrizketa eskatu ahal izango da jardueraren titularra aldi baterako ezintasun-egoeran badago eta beste langilerik ez duenean.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**7.715**

**959/2000 ERABAKIA, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bidez Ametzagako Kontzejuarekin hitzarmen bat sinatzea onartzen baita premiamendu bidezko dirubilketa Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bitartez egiteko.**

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 8. artikuluaren lehen paragrafoan xedatzen duenez, udal erakundeek eta Foru Aldundiak elkarrekin lan egingo dute zergen kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketaren arlo guztietan, dagokion hitzarmena sinatuta.

Elkarlanerako printzipio hori Arabako Foru Aldundiaren eta Kontzejuen arteko harremanetan ere aplikatzekoa da, zeren eta Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 1/1995 Foru Arauak 39. artikuluan xedatzen duenaren arabera, kontzejuen ogasunari ere aplikatuko baitzaio Toki Ogasunen Foru Arauak II Tituluan xedatutakoa.

Horretan oinarri hartuz, Arabako Foru Aldundiak eta Ametzagako Kontzejuak lankidetza hitzarmena sinatu nahi dute Ametzagako Kontzejuaren kreditu eta eskubideak premiamendu bidean Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bitartez biltzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.7) artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan egindako txostena ikusi da.

Ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Ametzagako Kontzejuarekin lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea, kontzeju horren kreditu eta eskubideak premiamendu bidean Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bitartez biltzeko; erabaki honen eranskinean jasotzen da hitzarmen hori.

Bigarrena.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematea aurreko paragrafoan aipatzen den hitzarmena zein hitzarmena gauzatzeko behar diren agiri guztiak sina ditzan.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

**8.005**

**1036/2000 ERABAKIA, abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketa —Valdegovíako udalerrirako egindakoa— onartzen da.**

Azaroaren 10ko 781/2000 zenbakiko Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Ondasun Higiezinen Zergaren

2. Cuando el desarrollo de actividades a las que resulte de aplicación el régimen simplificado se viese afectado por incendios, inundaciones, hundimientos o grandes averías en el equipo industrial que supongan alteraciones graves en el desarrollo de la actividad, los interesados podrán solicitar la reducción de los índices o módulos a la Administración Tributaria, en el plazo de treinta días a contar desde la fecha en que se produzcan dichas circunstancias, aportando las pruebas que consideren oportunas. Acreditada la efectividad de dichas alteraciones ante la Administración Tributaria, se acordará la reducción de los índices o módulos que proceda.

Asimismo, conforme al mismo procedimiento indicado en el párrafo anterior, se podrá solicitar la reducción de los índices o módulos en los casos en que el titular de la actividad se encuentre en situación de incapacidad temporal y no tenga otro personal empleado.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**7.715**

**ACUERDO 959/2000, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que aprueba la suscripción de un convenio con el Concejo de Amézaga para la recaudación en vía de apremio a través del Servicio de Agencia Ejecutiva de esta Diputación Foral.**

El articulo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.

Este principio de colaboración, resulta también aplicable a las relaciones entre la Diputación Foral de Álava y los Concejos, dado que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 1/1995, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava, lo dispuesto en el Titulo II de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, será de aplicación a la Hacienda de los Concejos.

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y el Concejo de Amézaga, desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través del Servicio de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Alava, de los créditos y derechos del Concejo de Amézaga.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el articulo 8.7), de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Juridico de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la suscripción con el Concejo de Amézaga, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través del Servicio de Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes al citado Concejo, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Autorizar al Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de diciembre de 2000.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

**8.005**

**ACUERDO 1.036/2000, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que aprueba la Modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada para el término municipal de Valdegovía.**

Por Orden Foral número 781/2000, de 10 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, la Modificación Parcial de la Delimitación

peko hiri lurzoruaren mugaketaren zati baten aldaketari, valdegoviako udalerrirako egindakoari.

Aipatutako arau horrren 4. artikuluak, bere xedapen-zatian, aldaketa hori Valdegoviako Udalari jakainarazteko agintzen zuen; 2000ko azaroaren 14an bidali zitzaion jakinarazpena Valdegovíako Udalari, eta 2000ko azaroaren 17ean jaso zuen.

Hiri Ondasun Higiezinen Zerga arautzen duen 42/89 Foru Arauak, uztailaren 19koak, 11. artikuluaren 4. idatz-zatian, kasuan kasuko udalari eman behar zaion entzuteko epea ezartzen du, egoki deritzona adieraziz txostena egin dezan; hamabost egunekoa izango dela zehazten du.

Epe hori igaro da eta Valdegovíako Udalak ez du kontrakorik ezer adierazi Hiri Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri-lurzoruaren mugaketa horren aurka.

Horregatik bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko forudiputatuak proposatuta, eta gaurko egunez Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, hau

XEDATU DUT:

LEHENBIZIKO ARTIKULUA.- Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri-lurzoruaren mugaketaren zati baten aldaketa —Valdegovíako Udalerrirako egin da— onartzea. Planeamenduko Ordezko Arauen Xedapen Aldaketetan ezarritakoa jasotzen da hemen: Pinedoko herriko lur-zati bati sailkapena aldatu eta hiri-lurzoru izendatzen da, Tuestako herrian urbanizatzeko industria-lurzoru egokia handitu egiten da eta Espejoko herriko bi lur-zati bizitegietarako lurzoru urbanizagarritzat sailkatu eta kalifikatzen dira; xedapen-aldaketa horiek urriaren 26ko 742/1998 zenbakiko Foru Aginduak, martxoaren 11ko 155/1997 Foru Aginduak eta martxoaren 31ko 179/1999 zenbakiko Foru Aginduak onartu zituzten, hurrenez hurren.

BIGARREN ARTIKULUA.- Aurrekoa gorabehera, kontuan izan behar da herriguneetatik kanpora egonik hiri-eraikuntzek hartuta dauden lurzoruen tratamenduari buruz Hiri Ondasun Higiezinen Zergaren uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artiluluaren b) idatz-zatiaren 1, 2 eta 3 puntuetan ezarritakoa.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratuko da, bai eta Lurralde Historikoan hedapen handiena duten egunkarietan ere. Horrez gain, 15 eguneko epean, jendaurrean egongo da erakusgai, interesatuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten. Valdegovíako Udalaren bulegoetan egongo da jendaurrean, honako arau hauek xedatutakoari jarraituz: Ondasun Higiezinen Zergaren uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauaren 11 artikuluaren 5. idatz-zatia eta hori erregelamenduz garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 zenbakiko Foru Dekretuaren 7, 8 eta 9 artikuluak.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko abenduaren 19a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru-diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Valdegovía.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Valdegovía, disposición que se realizó con fecha 14 de noviembre de 2000, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Valdegovía con fecha 17 de noviembre de 2000.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo anteriormente citado, el Ayuntamiento de Valdegovía no ha manifestado disconformidad alguna con la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Valdegovía, recogiendo las Modificaciones Puntuales de las Normas Subsidiarias de Planeamiento consistentes en: la reclasificación como suelo urbano de una parcela del pueblo de Pinedo, ampliación de suelo apto para urbanizar industrial en el pueblo de Tuesta y en la clasificación y calificación de dos parcelas como suelo urbanizable residencial en el pueblo de Espejo, aprobadas respectivamente por Orden Foral número 742/1998, de 26 de octubre, por Orden Foral número 155/1997, de 11 de marzo y por Orden Foral número 179/1999, de 31 de marzo.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Valdegovía, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**8.006**

**1035/2000 ERABAKIA, abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Ondasun Higiezinen Zergaren peko Hiri Lurzoruaren mugaketa — Lantziegoko udalerrirako egindakoa— onartzen da.**

Azaroaren 3ko 753/2000 zenbakiko Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketaren zati baten aldaketari, Lantziegoko udalerrirako egindakoari.

Aipatutako arau horrren 4. artikuluak, bere xedapen-zatian, aldaketa hori Lantziegoko Udalari jakainarazteko agintzen zuen; 2000ko azaroaren 7an bidali zitzaion jakinarazpena Lantziegoko Udalari, eta 2000ko azaroaren 10ean jaso zuen.

Hiri Ondasun Higiezinen Zerga arautzen duen 42/89 Foru Arauak, uztailaren 19koak, 11. artikuluaren 4. idatz-zatian, kasuan kasuko udalari eman behar zaion entzuteko epea ezartzen du, egoki deritzona adieraziz txostena egin dezan; hamabost egunekoa izango dela zehazten du.

**8.006**

**ACUERDO 1.035/2000, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que aprueba la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada para el término municipal de Lanciego.**

Por Orden Foral número 753/2000, de 3 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Lanciego.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Lanciego, disposición que se realizó con fecha 7 de noviembre de 2000, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Lanciego con fecha 10 de noviembre de 2000.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.